

Lehen Hezkuntza

2. Zikloa

3. eta 4. mailak

12 EKOIZPEN ETA
KONTSUMO
ARDURATSUAK



JUSTIZIA

Lantzeko garaia

SED materialak 24-25



Elkartasuna | Hezkuntza | garapena



Materialen indizea

Jarduera

Ikonorik gabeko kartel isila

03

Eranskinak

Ikonorik gabeko kartel isila

Ikonoak

Igarkizunak

05



Otoitza

Oració 1

Oració 2

Oració 3

08





Jarduera

SAIOAREN DESKRIBAPENA

Jardueraren izenburua

pausoz pauso aurrera, ekoizpen eta Kontsumo arduratsuaren bidean

Tokiak:

Ikasgela

Etapak:

2º cicle de primária

Maila:

3º i 4º ep



Denbora:

50-60 Min. Aprox.



Beharrezko materialak:

Horma-irudi mutua, ikonorik gabe (1. eranskina)
Horma-irudiaren fitxa, ikonoekin (2. eranskina)
Igarkizunen orria (3. eranskina)
Guraizeak, Kola



Saioaren garapena:

Saioa gidatuko duen tutoreak, aurrez, honako hauek prestatu beharko ditu:
Ikonorik gabeko horma-irudi mutu bat
(1. eranskina) inprimatuko du, ikasgelarako.
Ikonoak inprimatu eta guraizez ebakiko ditu
(2. eranskina).
Igarkizunen orria inprimatuko du (3. eranskina).



1

Motibazioa eta saioaren planteamendua (5-10')

12. GJHa aurkezten duen bideoa ikusiko da, eta bideoa arretaz ikustera bultzatuko dira ikasleak, gero bidean topatuko dituzten igarkizunak osatzen lagunduko baitie.

Talde txikitan (lauzpabost ikasleko taldeak) bilduko dira ikasleak. Eta materiala banatuko zaie (3. eranskina).

2

Saioaren atal nagusia (20-30')

Talde txiki bakoitza bere kabuz arituko da, igarkizun bakoitzak erreferentzia zeri egiten dion ikertuz. Denbora amaitzean, landu dutena bateratuko dute.

3

Saioa amaitu eta ondorioak ateratzea (15-20')

Talde handian, igarkizunen soluzioak bateratuko dituzte, eta, soluzio horiek eman ahala, ikonoak (2. eranskina) itsatsiko dituzte horma-irudi mutuan (1. eranskina), irudia osatzeko.

Igarkizun Zk.	Soluzioa	Horma-irudiko Ikonoa
1	Natura-baliabideak	Hostoa
2	Prozesatu gabeko produktuak	Landarea eta hostoa
3	Energia	Bonbilla
4	Nekazaritza	Traktorea
5	Bidezko merkataritza	Balantza
6	Lehengaiak	Ogia
7	Kontsumo-produktuak	Esnea eta arrautzak

Amaitzeko, gogoeta egingo da ikono horien eta 12. GJHaren artean dagoen loturaz.



Eranskinak

Es tiempo de cultivar JUSTICIA



OBJETIVOS
DE DESARROLLO
SOSTENIBLE



Eranskinak 2



Eranskinak 3 IGARKIZUNAK



Lurra dut jatorri, eta itsasoa,
eta bizitzarako dut balio osoa.
Ura naiz, eta eguzkia,
haizea naiz, eta zuhaiztia.

Zaindu nazazu, eta babestu,
zure etorkizuna dago nire esku.
Ezinbestekoa naiz munduarentzat.
Ezinbestekoa, zuretzat.



Zelai, mendi eta itsasoan,
Topatuko nauzu aldatu gabe, zentzu
osoan
Ez naiz inongo lantegitatik igaro,
eta zaporea dut oparo.

Fruta freskoa, arraina,
Jatorrian bezain puru, alajaina,
ez nau eraldatu ez makinak, ez
errotak,
nor naizen jakiteko, horiexek nire
notak.



Etxean, eskolan eta edonon
ni naiz indar higiarazlea.
Eguzkiak eta haizeak sortua naiz,
eta argitzen dut ilunpea.

Bonbilla eta jostailuek,
auto nahiz tresnek
behar naute bizitzeko.
Gai ote zara nor naizen asmatzeko?



Lurra dut lanbide,
eta ereitea ogibide.
Landare eta fruitu,
neu naiz janarien sorleku.

Eguzkia eta euria behar ditut hazteko,
landa ingurunean erroei eusteko.
Baratzean aurkituko nauzu, oinak
lurrean.
Asmatu duzu zer egiten dudan nire
jardunean?



Merkataritza mota bat naiz,
zentzuz pentsatuta, justiziazkoa,
guztientzat naiz irabazizkoa,
eta inori kalte egin gabe ari naiz.

Nekazariei laguntzen diet,
eta langileei ere bai,
bidezko prezioa ordainduz,
guztiak pozteko gai.



Gauza guztien jatorria,
lurrean dut habia,
mila gauza datoz nigandik,
erabiltzeko presturik.

Metalak eta garia,
meategi nahiz itsasoetatik erauzia.
Ni gabe ezin ezer egin,
nahi al duzu nor naizen jakin?



Azokan naukazu, edo dendan eta
etxean
askotariko formak ditut
jostailu edota jantzietan,
eta diruz eros nazakezu.

Maiz erabiltzen duzun zerbait naiz,
behar nauzuna egunerokoan,
izan naiteke janari, izan naiteke
liburu,
ezetz asmatu nor naizen
lehenengoan?

Otoitzak

Erein



Hartu gogoan Jainkoa, orain eta hemen. Itxi begiak, eta hartu arnasa sakon. Sentitu zure gorputza lasaitzen... Eman egun onak Jesusi.

Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

Zaindu



Gure ekintzek eragina dute planetaren jasangarritasunean... IKUSI TOKIKO MERTARITZARI BURUZKO BIDEOA

Mt 6, 7-15

“Ez izan horien antzeko, bai baitaki zuen Aitak zeren beharra duzuen, zuek eskatu baino lehen”.

Partekatu



Pentsatu zure etxetik edo eskolatik gertu dauden **tokiko saltokietan**, behar duzun oro erosteko aukera ematen dizutenetan, eta adierazi ikaskideei zein diren.

Ba al dakizue saltoki horietan erosiz saltoki txikiei laguntzen diezuela eta **aztarna ekologikoa murrizten** laguntzen diezuela?

Esan elkarrekin **Gure aita**

Otoitzak II



12 EKOIZPEN ETA
KONTSUMO
ARDURATSUAK



Erein



Hartu gogoan Jainkoa, orain eta hemen. Itxi begiak, eta hartu arnasa sakon. Sentitu zure gorputza lasaitzen... Eman egun onak Jesusi.

Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.
Amen.

Zaindu



Lk 6, 36-38

“Eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurriz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak”.

Partekatu



Ez da nahikoa **hondakinak murriztea**. Aurrerago joan zaitezke, eta **KONTSUMOA MURRIZTU**.

Gehienetan, behar duguna baino gehiago kontsumitzen dugu. Zer egin dezakezu gaur kontsumoa murrizteko?

Amaitzeko, Gure aita esango dugu elkarrekin, guk adina ez duten guztien alde.

Otoitzak III



LEHEN-LEHENIK, PERTSONA

Erein



Itxi begiak, eta hartu arnasa sakon. Sentitu zure gorputza lasaitzen... Eman egun onak Jesusi.

Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

Zaindu



Ezagutzen al duzu FMCh lantegi soziala?

Gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu bat da, Marcelino Champagnat fundazioarena. Lantegi sozial hau lanean ari da 2015etik, Malagan, arte grafikoen esparruko zerbitzuak eskainiz; astero-astero, ehun-gintzako eta promoziorako ehunka produktu pertsonalizatu egiten dituzte, printzipio nagusi honi jarraituz: **giza eskubideen eta ingurumenaren errespetua**. Zure SED jantzi ugari fundazio horretan eginak dira!



SOMOS TALLER SOCIAL

El TALLER SOCIAL de la Fundación Marcelino Champagnat lleva en...
fundacionmarcelinochampagnat.com

MORE INFO



Partekatu



Gaurkoan, erronka txiki hauxe jarri nahi dizugu: hitz gin zure ingurukoekin munduan dauden gauza onei uruz.